

## **ANIMALIEN ARIMA**

### **IDEIA**

Gure proiektuaren asmoa maskotak dituzten pertsoneri laguntzea da, beren maskotei bizitzarik eta heriotzarik onena ematen.

Horretarako aplikazio bat sortuko dugu. Aplikazio horren bidez, maskotekin erlazionatuta dauden zerbitzu guztiak eskura izango dute, hala nola, janaria erostea, albaitariarekin hitzordu bat antolatzea, maskota galtzen denean non dagoen jakitea, eta hiltzen denean, egin beharrekoa. Ideia hau aukeratu dugu jende askorentzat animaliak familiako beste kide bat direlako, eta horregatik eman nahi izan diegu merezi duten lekua, eta hiltzen direnean, legeak ez duelako onartzen maskota edonon uztea.